

## **Etika Publikorako Batzordea**

**Aztergaia: 2/2019**

**(...) (...)KO ENPLEGATU PUBLIKOAK JARRITAKO SALAKETARI BURUZKO ERABAKIA, 2011KO EKITALDIARI DAGOKION GARAPEN PROFESIONALERAKO MAILA AITORTZEKO PROZESUAN HIERARKIAN GORAGO DAGOEN BERE ARDURADUNAK EGIN ZION BALORAZIOA DELA ETA.**

1.- 2019ko urtarrilaren 15ean, Etika Publikorako Batzorde honi zuzendutako idazki bati eman zitzaion sarrera Eusko Jaurlaritzaren erregistro nagusian. Interesduna (...)an langile finko gisa lanean ari den enplegatu publikoarena da idazkia. 2011ko ekitaldiari dagokion garapen profesionalerako maila aitortzeko prozesuan izan ziren gorabeheren berri ematen dio organo honi idazki horretan; interesdunak dioenaren arabera, (...)ko langile finko gisa duen eskubidea erabilia hartu zuen parte lehiaketa horretan, baina bere nagusiak ez zion karrera profesionalean berak nahi zuen mailetara iristeko balioespenik egin.

2.- Idazkian zehazten da salaketa-egileak prozesu horretan parte hartzea erabaki zuela bere garaian, amaierako mailara iritsi nahi zuelako, hau da, IV.era, eta horretarako hiru azterketa-multzo gainditu behar zituela. Jarraian azaltzen du arazorik gabe gainditu zituela lehenengo bi multzoak, baina “azkenak –nire nagusiak egindako ebaluazio pertsonal eta subjektiboak– maila horretara iristea galarazi zidan”.

3.- Betiere idazki horretan jasotakoa aipatuz, interesdunak gora jotzeko errekurtoa jarri zuen Giza Baliabideen zuzendariaren Ebazpenaren kontra, horren bidez ebatzi baitziren 2011ko ekitaldirako garapen profesionalerako mailak aitortzeko eskabideak, baina zuzendari nagusiak, Ebazpenaren bidez, ezetsi egin zuen gora jotzeko errekurto hura.

4.- Interesdunak dio berak jarritako gora jotzeko errekurtoari erantzuten dion Ebazpena “azalpen handiegirik gabe eman” zela, bakarrik esanez administratiboki prozesua zuzena izan zela, baina “ebaluazio pertsonalaren atala zergatik ez nuen gainditu jakiteko arazoaren muinera sartu gabe; hau da, niri eman zidaten puntuazioa zer txosten, hutsegite edo espedientetan oinarritzen den azaldu gabe (ez dago horrelakorik, oraintsutik argitzen dizuet)”. Eskubide subjektibo eta interes legitimoak mugatzen dituzten administrazio-egintzak beti arrazoitu egin behar direla azaltzeko lege- eta jurisprudentzia-aipamena eta kasu honetan urratu ahal izan diren EJKren printzipioen zerranda egin ostean, amaitzen du esanez gora jotzeko errekurto horretan ez dela zuzendu “injustizia ageriko bat, zigorgabetasuna ere ukitzen duena”.

5.- Salaketa-egileak uste du haren kontrako diskriminazio argia egin dela, bera baita maila hori ukatu zaion gremio horretako bakarra, “nahiz eta banituen gainerako edozeinek bezainbeste meritu edo gehiago, zeina dokumentu bidez egiazta dezakedan, beharrezkoa bada”.

6.- Etika Publikorako Batzorde honi zuzendutako idazkian beste agiri hauek ere erantsi dira: salaketa-egileak azalpen-atal honen 3. puntuari aipatutako gora jotzeko errekurtsua jartzeko erabili zuen idazkiaren fotokopia eta gora jotzeko errekurtsu hori ezetsi zuen zuzendari nagusiaren ebazpenaren fotokopia, non xehetasunez azaltzen den interesdunak IV. maila iristeko ebaluazioko hiru multzotako bakoitzean zer emaitza izan zituen, bai eta, oro har, atal horietako bakoitza gainditzeko zenbat puntu eskatzen diren ere. Hemen aztertzen ari gareneri dagokionez, seigarren zuzenbide-oinarria nabarmendu behar da ebazpen horretatik; honelaxe dio:

“Araudian ezarritakoaren arabera, hierarkian gorago dagoen arduradunak ebaluatu zuen errekurtsu-egilea; arduradun horrek ebaluazio-eskuliburua eta bertan jasotzen diren balorazio-eskala aplikatu zituen, eta jarduerarekin, lanarekin eta lanbidea menderatzearekin erlazionatuta dagoen A multzoari eta ahalegintzearekin eta erakundearekiko konpromisoarekin erlazionatuta dagoen C multzoari dagozkien faktoreak eta itemak puntuatu zituen. Ebaluazioaren emaitzak aplikazio informatikoan erregistratu zituen, eta erakundearen ebaluazio-batzordeari bidali zizkion, hark aztertu eta tratatu zitzaizkien.

Ebaluazio-batzordeak, prozesuan zehar sortutako informazioa, curriculum-merezimenduak barematu osteko emaitzak, arduradunaren ebaluazioa eta profesional bakoitzak eskabidean betetako ekarpen-fitxak kontuan hartuta, ebaluazioko emaitzak eta erakundearen egindako ebaluazioaren ondoriozko garapen profesionalerako maila guztiak onetsi zituen, eta Zuzendaritza Nagusiari igorri zizkion”.

7.- Idazkian, amaitzeko, bi gauza eskatzen zaizkio Etika Publikorako Batzorde honi:

-”Txosten zehatza, non azaltzen den hierarkian goragoko nire arduradunak zergatik puntuatu ninduen gainerako guztiei eman zien mailara ni ez iristeko moduan; izan ere, ni naiz haren ardurapeko mendeko langileen artean hori gertatu zitzaion bakarra; horrenbestez, maila hori ez dudala merezi eta gainerako guztiek merezi dutela agiri bidez frogatzen duten nire lanari buruzko txostenak, espedienteak, kexak eta abar eskatzen ditut”.

-”Nireganako diskriminaziozko trataturik egon den, eta, hala bada, zergatik”.

Eta gehitzen du eskubidea duela jaso duen tratuari buruz modu publikoan, dokumentatua eta objektiboan informatua izateko.

Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 artikuluko bigarren hitz-tarteak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du aho batez:

## **ERABAKIA:**

### **I.- Aurrekariak**

1.- Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea (EJK) sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea izan zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko erronkari erantzutea ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzea, haren eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegintzea.

2.- EJK-k bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Horretarako, EJKren 16.3 apartatuaren lehenengo hitz-tartean ezarritakoaren arabera, EPBren eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

### **II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA**

1.- Erabaki honen sarreran azaldu denez, EPB honek “txosten zehatza” egitea nahi du salaketa-egileak, jakiteko zergatik puntuatu zuen hierarkian gorago dagoen haren arduradunak ebaluazioaren 3. multzoan salaketa-egileak eskuratu nahi zuen mailara ez iristeko moduan, jakinik bera bakarrik izan dela hierarkian gorago dagoen arduradun horren ardurapeko mendeko guztietatik hori gertatu zaion bakarra. Hauxe eskatzen du zehatz-mehatz:

“dokumentu bidez maila hori ez dudala merezi eta gainerako guztiek merezi dutela frogatzen duten nire lanari buruzko txostenak, espedienteak, kexak eta abar”.

2.- Erabaki askotan esan dugu –ikus, besteak beste, 1/2017 Erabakia– EJK-k KPJKIGren 4. artikuluan jasotako katalogoan datozen kargu publikoak bakarrik behartzen dituela –beraz, baztertu egiten dira, printzipioz behintzat, funtzionarioak, estatutupekoak edo laboralak, ez baitaude katalogo horretan sartuta–, eta kargu publiko izendatzen dituztenetik kargua uzten duten denbora-tarterako behartzen dituela –hor sartzen da kargu publiko izendatzen dituztenean pertsonalki eta banaka EJK-ra atxiki behar izatea–.

3.- Erabaki hau eragin duen pertsonak ez duenez zehazten nor den ustez EJK urratu duen pertsona –hau da, ez du identifikatzen C multzoko ebaluazioa egin zion “hierarkian goragoko arduraduna” nor den, zeinak salaketa-egileak garapen profesionalerako lortu nahi zuen mailarako behar zuen puntuazioa baino gutxiago eman zion–, ezinbestekoa iruditzen zaigu alderdi hori argitzea, jokabide publikoko eredia bete beharrik ez duen pertsona batek EJKren ustezko urraketa bati buruzko erabakirik eman beharrik ez izateko.

4.- (...)ren Giza Baliabideetako Zuzendaritzan dagokion kontsulta egin ondoren, idatziz adierazi digute interesdunaren garapen profesionalerako maila aitortzeko prozesuan C multzoaren ebaluazioa egin zuena ez dela kargu publikoen katalogo eguneratuan datorren kargu publikodun bat eta, hortaz, EJK-ra lotua, baizik eta “ebaluazioa egin zen unean interesdunak bere eginkizunak burutzen ari zen zerbitzu-erakundeko mendeko langileen burua” zela, hau da, euskal osasun zerbitzuan estatutupeko langile gisa lanean ari den pertsona bat, eta langile horiek espresuki baztertuta daude EJK-ren manu eta aginduak betetzetik (2.2. artikulua).

Horrenbestez, ezin dugu jarri den salaketa onartu, langile publiko batez ari delako, eta, beraz, ez dagoelako EJKren mende, eta, ondorioz, ez delako EPB honen jarduera-eremu subjektiboaren barruan sartzen.

5.- Gainerakoan, EPB honek ere ezin ditu bete salaketa-egileak dituen sakoneko nahiak.

6.- Lehenik eta behin, ez dagokiolako EPB honi administrazio-egintza baten arrazoitzea legeak ezarritako azalpen- eta argudio-atalasera iristen den edo ez iriztea. Administrazio-bidea agortzen denean, kasu honetan bezala denboran eta forman behar bezala aurkeztu zen gora jotzeko errekursoaren ebazpena eman ostean, organo judizial batek soilik aztertu eta ebatzi dezake gaia, administrazioarekiko auzien dagokion prozeduraren esparruan.

7.- Bestetik, gure iritzia eskatu den gai zehatz honi dagokionez, nahiko argi dago interesdunaren hierarkian goragoko arduradunak egindako C multzoko ebaluazioari ez zitzaiola arrazoirik eta oinarririk falta. Interesdunak bere garaian jarri zuen gora jotzeko errekursoa ezesten duen ebazpenaren seigarren zuzenbide-oinarriak “Ebaluazio eskuliburua eta bertako eskalen balioespena” izeneko gidako edukiak aipatzen ditu. Ez dagokio EPB honi eskuliburu

horrek ebaluazio-prozesua irizpide argi, objektibo eta gainbegiratzeko eta kontrolatzeko modukoekin egitea agintzen duen edo ez jakiteko irizpena ematea, batzorde honen eginkizunak gainditzen dituelako.

8.- Hirugarrenik, ezin ukatuzkoa da salaketa-egileak eskubide osoa duela hari eragiten dioten administrazio-erabakiak hartzeko balio izan duten dokumentuak eskuratzeko. Halaxe onartzen dio gure ordenamendu juridikoak, hain nabarmenak izateagatik hemen zehatz-mehatz aipatzea merezi ez duten arauen bidez.

9.- Baina eskubide hori gauzatuko dela bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoak Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea du, zeina irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren bidez sortu zen –Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen funtsezko eskema operatiboa garatzen du dekretu horrek–, EAEko sektore publiko autonomiko eta tokikoa osatzen duten administrazio eta erakundeek emandako ezezko ebazpen ororen aurka herritarrek, aukeran eta administrazioarekiko auzien jurisdikziora iritsi aurretik, ezar dezaketen errekurtsioen kasuan, informazio publikoa eskuratzeari dagokionez.

Hortaz, interesdunak instantzia horretan jarri behar zuen errekurtsioa, interesatzen zaion dokumentazioa eskuratzeko eskubidea gauzatua ikus zezan.

10.- Hori guztia aintzat hartuta, EPB honek erabaki hau hartzen du, aho batez:

#### **ERABAKIA:**

1.- Ez onartzea (...) jaunak aurkeztutako salaketa, EJKren mende ez dagoen langile publiko baten jokabideari buruzkoa delako, eta, ondorioz, EPB honen jarduera-eremu subjektiboaren barruan sartzen ez delako.

2.- Ez dagokiola EPB honi administrazio-egintza baten arrazoitzea legeak ezarritako azalpen-eta argudio-atalasera iristen den edo ez iriztea.

3.- Salaketa-egileari ondorioak ekarri dizkion administrazio-erabakien euskarri izan daitekeen dokumentazioa eskuratuko duela bermatzeko, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordera jo dezake salaketa-egileak (irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren bidez sortu zen batzordea).



**JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO**  
**Etika Publikorako Batzordeko lehendakaria**

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 21a**